DEBAKO UDALA

2024SECG0004
4.bilera: OHIKOA 2024/05/23

# TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN BILKURA-AKTA

BILERA ZK.: 4/2024
EGUNA: 2024/05/23
HASIERA ORDUA: 17:05
AMAIERA ORDUA: :17:30
TOKIA: Bilera gela, 2. solairua.

**BERTARATUAK:**

Alazne Txurruka Allika, alkatea.

Asier Urain Buenetxea, lehen alkateordea.

Monica de Prado Paniagua, hirugarren alkateordea.

**Bertaratzea desenkusatzen dute:**

Jon Riaño Ojanguren, bigarren alkateordea.

Isidro Aristi Oruezabal, Elkarrekin Orain Deba

**Idazkaria:** Jose Luis Salaberri Iñarra

## ESAN-EGINAK ETA ERABAKIAK

### 1. Aurreko bilkuraren akta onartzea, hala badagokio.

Tokiko Gobernu Batzarrak 2024ko apirilaren 18an eginiko bileraren akta aurkeztu zen.

Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, akta onartu zuten.

### 2.- Langileen TAO txartela.

Alkateak aurkeztu zuen udal langileei lanerako TAOko txartelaren tasako 55,00 euro gauzazko lansari gisa ezartzeko proposamena. Zenbateko horrek Udalak bere langileei eman dakioken gizarte-ekintzako prestazioa litzateke, eta, horren helburua litzateke kanpoan bizi diren langileei lanera etortzeko erraztasuna ematea.

Horrela, eskaera egiten duten langileek tasaren 5,00 euro ordainduko lukete zuzenean, eta tasaren beste 55,00 euroak gauzazko lansari gisa jasoko dira langilearen nominan.

Asier Urainek planteatu zuen era berean, aztertu beharko litzatekeela TAO tasan hobari motaren bat ezartzeko aukera, Debako egoiliarrak izan gabe herriko saltokietan lan egiten dutenentzat.

Alkateak erantzun zion gai horrek azterketa lasaiago eta sakonago eskatzen duela eta hurrengo TAOren denboraldiko aztertu beharko liratekeela.

Gaia aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, onartu zuen Udal langileei TAOko txartelaren tasako 55,00 euro gauzazko lansari gisa ezartzeko proposamena.

**3.- Eskari eta galderak.**

Ez ziren egon.

Horrenbestez, beste aztergairik ez dagoenez, 17:30an amaitu zen Tokiko Gobernu Batzarraren bilera.

| | |
|---|---|
| Joseluis Salaberri Iñarra<br>Idazkaria | Alazne Txurruka Alika<br>Alkatea |